



Puntukako gidabaimenaren nondik norakoak aztergai

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ Lege berriaren inguruan, aldeko nahiz kontrako iritziak eman dituzte herritarrek

HELBURUA ▶ Bengoetxea autoeskolako arduradunaren arabera, «helburua sentsibilizatzea da, eta ez zigortzea» ▶ 2,3

IBARRA ▶



HITZA

Alurr dantza taldearen kultur trukea Italian

29. Nazioarteko Folklore Jaialdian hartuko dute parte ▶ 6

ARESO ▶

600ekoari ekiteko prest dira sokatira taldekoak

640 kilotan brontzezko domina eskuratu dute ▶ 7



I. GARCIA

UDANE SARASOLA ▶ TXIRRINDULARIA

«Emakumezkoen txirrindularitzak ez du laguntzarik»

Tafallan egin berri duten Espainiako Pista Txapelketan brontzezko bi domina lortu ditu, jubenil mailan, Sarasola Tolosa CFko txirrindulariak ▶ 4

PUNTIKAKO GIDABAIMENA ▶

UNAI ALDASORO
AUTO GIDARIA (TOLOSA)

«Argi dago legeak zorroztea dela bidea; eroarena egiten ibiltzen dira asko eta hori ekidin beharra dago»

ALVYDAS MISIUNAS
KAMIOLARIA (LITUANIA)

«Jendeak kultura gehiago balu hobe gidatuko luke; nire lanbidea da eta kalte handia egin diezadake»



Alvydas Misiunas. N. L.

NEREA GOIKOETXEA
GIDARIA (ASTEASU)

«Errekurtsoa aurkezteko aukera gutxiegi ematen ditu, indefentsoago gaude; ez da gaizki gidatzen»

IBAN SARASOLA
KOMERTZIALA (HERNANI)

«Kontraesankorra da legea, jendeak mantsoago gidatzea nahi badute, zaldi gutxiagoko autoak egiteko»

Puntuz puntu errepidean

Iragan uztailaren 1ean jarri zuten indarrean puntukako gidabaimena; asteburuan 76 pertsona zigortu zituen Ertzaintzak EAEn gehiegizko abiadura gainditzeagatik

E. EZEIZA-N. LATABURU



Puntuen bidezko gidabaimena indarrean dela, gidariak 3 puntu galduko ditu mugikorra eskuetan erabiliz gero. N. LATABURU

Hemen da azkenean puntukako karnetaren «mama». Hori buruz horrenbeste hitz egin eta gero, joan den asteburutik, hau da, hilaren 1etik, abian da lege berri hau.

Puntukako gidabaimenak zirkulazio arauak betetzen ez dituztenentzat baizik ez du al daketa ekarriko. Arau-hauste batzuk diruzko isunak eta gidabaimenaren baliogabetzea ekartzeaz gain, puntuen deskontua ekarriko dute, aipatutako gidabaimena galdu arte. Araudi berri honekin trafiko istripuak eta heriotza kopuruak murriztu nahi dira.

Gidari batek hiru urtetik gorako eskarmentua badu, 12 puntu izango ditu. Eta gidari hasiberriak, 8 puntu izango ditu. Bestalde, puntu guztiak agortzeagatik gidabaimena edo lizantzia galdu eta beste berri bat erdiesten duenak ere hasiberrien puntu kopuru bera izango du. Hala ere, hiru urtetan arau-hausterik egiten ez duenak, hasierako 12 puntuak

PUNTIEN GALERA ZEHAZTUTA ▶

Gidariak 12 punturekin ekingo diote lege berriari. 3 urtetik beherako eskarmentua dutenek, berriaz, 8. Hona hemen, zehaztuta, arauak urratuz gero galduko diren puntuen kopurua:

2 PUNTU

- ▶ Bihurguneetan, aldats aldeketetan, tuneletan, behe-igarobideetan, bidegurutzeetan edo zirkulazioarentzat edo oinezkoentzat arriskutsua izan daitekeen beste edozien leku arriskutsutan gelditzea edo aparkatzea.
- ▶ Hiriko garraio publikoarentzat bereizirik bideetan gelditzea edo aparkatzea.
- ▶ Trafiko-agenteen zaintzea saihesteko radareak detektatzeko edozein sistema erabiltzen baduzu.
- ▶ Argirik gabe ibiltzea beharrezkoa denean edo argiak

arauak agintzen duten ez bezala erabiltzea.

- ▶ 12 urtetik beharagoekin bidaiari gisa gidatzea motozikleta nahiz ziklomotoreetan (arauzko salbuespenak salbuespen).
- ▶ Abiadura mugak orduko 20 eta 30 kilometro bitartean gainditzea.

3 PUNTU

- ▶ Itzulbidea arauak bete gabe egitea.
- ▶ Aurreko ibilgailuarekiko segurtasun tarteari ez eustea.
- ▶ Sakelekoa eskuetan erabiliz gidatzea, kaskoak, belarrikoak edota gidatzea oztopatzen duen gailuekin gidatzea.
- ▶ Segurtasun uhalik gabe, kaskorik gabe eta beste nahitazko segurtasun tresnarik gabe gidatzea.
- ▶ Abiadura mugak orduko 30 eta 40 kilometro bitartean gainditzea.

4 PUNTU

- ▶ Autopista edo autobideetan debekatuta dauden ibilgailuekin gidatzea.
- ▶ Baimendutako eserlekuak baino %50 edo gehiagorekin gidatzea, gidaria kontaktu gabe, hiriko edo hirarteko autobustean izan ezik.
- ▶ Ibilgailu bat horretarako gaitzen ez duen baimen edo lizentzia batekin gidatzea.
- ▶ Bidera edo inguruertara suteak edo ezbeharrak eragin ditzaketen objektuak botatzea.
- ▶ Era zabarrean gidatzea besteak beste sorraziz.
- ▶ Abiadura mugak orduko 40 km-tan gainditzea, %50eko gehiegikeria iristen ez baldin bada.
- ▶ Igarotzeko lehenetasuna ez errespetatzea, gorri dagoen semaforo bat pasatzea eta STOP seinale baten aurreran ez geratzea.
- ▶ Aurreratze arau orokorrak

- ez betetzea, kontrako noranzkoan doazen arriskuan jarriz edo oztopatuz, edo gutxi ikusten den toki edo egoeratan aurreratzea.
- ▶ Txirrindulariak arriskuan jarriz edo oztopatuz aurreratzea.
- ▶ Atzera egiteko maniobra egitea autopista eta autobideetan.
- ▶ Zirkulazioa bideratzen duten agenteen seinaleak ez errespetatzea.
- ▶ Aurreratzea galarazten edo zailtzen duten maniobra egitea edo lastertasuna emendatzea.
- ▶ Alkohol-tasa 0,25etik gora eta 0,50era bitartekoa baldin bada (profesionalak eta hasiberriak 0,15 eta 0,30 bitartean).

6 PUNTU

- ▶ Botatako arnasan litroko 0,50 mg-tik gorako alkohol-

tasarekin gidatzea (profesionalak eta hasiberriak 0,30tik gora).

- ▶ Gai sorgarri, psikotropiko, bizkorgarri eta antzeko ondorioak dituzten beste gaien eraginpean gidatzea.
- ▶ Era arriskutsuan gidatzea, kontrako norabidean ibiltzea eta ibilgailua baimendu gabeko lehiaketa eta lasterketetan gidatzea.
- ▶ Alkoholemia, gai sorgarriak, psikotropikoak, bizkorgarriak, eta antzeko ondorioak dituzten beste gaiak hautemateko probei erantzuteko betebeharrari uko egitea.
- ▶ Baimendutako abiadura muga %50etik gora gainditzea, aipatutako muga gorena orduko gutxienez %30ean gainditzea ekartzen baldin bada.
- ▶ Gidatzen emateko denbora % 50 baino gehiago gainditzeaz edo atsedenean emateko denbora %50 baino gehiago gutxitzea.

NAIA MATIA
GIDARIA (TOLOSA)

«Jendeak hasieran neurriak beteko ditu, baina denborarekin gauzak lehenagokora itzuliko dira»

ANDRES CURTO
BANATZAILEA (DONOSTIA)

«Helburua diru gehiago lortzea da eta kasu batzuetan zorrotzegia da eta bidegabeegia izan daiteke»



Andres Curto. N.L.

JOSE LUIS ARRUE
GIDARIA (VILLABONA)

«Denborarekin ikasiko dugu, eta harreta gehiago jarriko dugu; gainera, orain arteko datuak baikorrak dira»

IMANOL GOIKOETXEA
GIDARIA (ARRASATE)

«Gobernuak dirua ateratzeko beste bide bat da, isunez gain, orain ikastaroa ere ordaindu beharko dugu eta»

beste bi punturekin emendatuko ditu, eta beste batekin, hurrengo hiru urteetan, berdin jarraituz gero. Alderantziz, puntu guztiak galduz gero berri, gidabaimena ere galduko da, eta sei hilabete igaro arte ezin izango da baimen berria atera. Honetarako, sentsibilizazio eta berreziketa ikastaro bat jaso beharko da eta trafikoko Zuzendaritzaren proba teorikoa gaituztu. Puntuak ez dira arauhaustearen une berean galtzen, zigorra indarrean jartzen denean baizik.

Lege hau nagusiki gidari ez profesionalen zuzendua dago, horregatik, profesionalerik abantaila batzuk aurrikusten dira.

Ertzaintzaren datuak

Dagoeneko plazaratu ditu Ertzaintzak Euskal Autonomia Erkidegoko lehen bi egunetako emaitzak. Datu hauen arabera, gehien eman den arauhaustea, gehiegizko abiadura eramatearena izan da, denera 76 gidarik egin dute hau. Horietatik 32k 20-30 kilometro ordutan gaituztu dute eraman beharrekoa. Beste 14k 30-40 kilometro ordutan gaituztu dute, eta batek 40-50ean. Azkenik, 29 pertsonen, gehieneko abiadura %50ean gaituztu dute, betiere, abiadura mugagutxienez 30 kilometro ordutan gaituztean. Arau urratze hauengatik, hurrenez hurren, bi, hiru, lau eta sei puntu galdu dituzte gidariek. Bestalde 12 pertsona zigortu dituzte segurtasun uhala ez erabiltzeagatik. Honez gain, onartutako alkohol tasa gaituztu dute 14 gidarik, eta hauen erdiei, 4 puntu kendu dizkiete, eta besteiei, sei.

JOSEAN BENGOTXEA ▶ BENGOTXEA AUTOESKOLAKO ARDURADUNA

«Lege berri honen helburua ez da zigortzea, baizik eta gidaria sentsibilizatzea»



NOELIA LATABURU

Gipuzkoako bost autoeskola dira, iragan uztailaren 1a gerostik, gidabaimenaren puntuak berreskuratzeko zerbitzua eskaintzen dutenak. Horien artean dago Villabonako Bengoetxea autoeskola. Nagusia den Joxean Bengoetxeak lege berriaren eta puntuak berreskuratzeko ikastaroen gainean jardun du HITZAREKIN. **Eskualdean puntuak berreskuratzeko zerbitzua eskainiko duzue. Zertan datza?** Eusko Jauriaritzak eskatu zuen lurralde guztia bete behar zela eta autoeskolak banatuta egon behar zutela. Lehiaketara aur-

keztu ginen eta beste laurekin batera osatzen dugu Gipuzkoa: Donostia, Irun, Eskoriatza eta Aretxabaleta. **Nola berreskuratu ahaliko dira puntuak?** Bi ikastaro ditugu: 12 ordukoa eta 24 ordukoa. Lehenak puntuak berreskuratzeko balio du eta bigarrenak karneta berreskuratzeko. Gure asmoa datorren urtean hastea da betebetea, orain %30ean babestuko dugu. **Eta nahikoa da ikastaroa egitea?** 12 ordukoaren kasuan bai, izan ere, helburua galdutako

puntuak berreskuratzeko da, baina oraindik karneta ez dugu. Webgunean, gainera, autoeskola guztietako ordutegiak finkatuta daude, kanpoan ere berreskuratu nahi izanez gero. 12 ordukoan ez dago azterketarik. **Eta berdin dio zenbat puntu gutxiago dituzun?** Bai, helburua berreskuratzeko da, beraz, ez da kontuan hartuko zenbat gutxiago dituzun. **Eta karneta galtzerakoan?** Kasu honetan, 24 orduko ikastaro bat egin beharko dute. Nahiko eramangarria izango da: bideok, hitzaldiak, istri-

puak izandakoen elkarteko bi- zipenak, eztabaidak... Berezi- ki urratu duten legearen inguru- ko sentsibilizazioa jasoko dute eta azterketa ere horren inguruan izango da.

Zenbat kostatuko litzateke ikastaro bakoitza?

12koaren kasuan 170 euro ordaindu beharko dute eta 24koan, berriz, 320 euro. Hala ere, azken honetan azterketan kale eginez gero 100 euro gehiago eta lau orduko beste ikastaroa; berriz huts eginez gero, beste 100 euro eta lau ordu gehiagoko ikastarotxo. Aukera honetan ere kale egiten badute hasieratik hasi beharko dute, baita prezioan ere. **Beharrezkoa al zen neurri hau hartzea?**

Horrelako zerbait behar zen, Europako gainontzeko estatu- etan emaitza onak eman ditu. Ohitu egin gara istripue- tara eta horrelako egitasmoak sentsibilizatzeko balio izatea espero dut. Jendeak ez dezala hartu zigor baten moduan.

Eta lortuko al du?

Nahiko ezkor nago horren inguruan; beldur gara, ea jende- ak zer nolako jarrerarekin eto- rriko den ikastaroetara, hau da, behartuta.

Gaizki gidatzen al dugu Eus- kal Herrian?

Orokorrean ez, baina badaude batzuk legeak etengabe haus- ten dituztenak.

hitza Harpidedunen txokoa

HITZAK bere harpidedunen artean egindako zozketaren irabazleak

Alaitz Uzkudun Zuloaga (Villabona)
Jesus Gorostidi Alberdi (Leaburu-Txarama)

ZORIONAK eta eskerrik asko HITZA aukeratzeagatik!

1 TENERIFERA 2 LAGUNENTZAKO BIDAIAREN IRABAZLEA
Alaitz Uzkudun Zuloaga (Villabona)

LAUTREK
bidaia agentzia
korreo kalea, 52 • TOLOSA
Tel.: 943 67 39 99 - 943 67 39 21
Faxa: 943 67 39 12
zure neurriko bidaliak antolatzen ditugu

2 2 LAGUNENTZAKO OTORDU EDERRAREN IRABAZLEA
Jesus Gorostidi Alberdi (Leaburu-Txarama)

ZUMETA JATETXEA
Berjaldegi Plaza, 2/g • Tolosa
Tel.: 943 88 28 93

Zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea.

TOLOSA >

Aurten ere, Alde Zaharreko sanferminak egingo dituzte

Plaza Berrian egingo dituzte ekitaldiak; txupinazoak emango die gaur hasiera

ERREDAKZIOA

Alde Zaharreko bizilagunek sanferminak antolatu dituzte. Bi eguneko egitaraua gaur hasiko da. 12.00etan txupinazo botako dute eta gozokiak eta globoak banatuko dituzte. 12.00etatik 13.00etara Nafarroako jotak abestuko dituzte eta buruhandiak ere aritiko dira haurren artean korrika. 17.00etan haur jolasekin hasi eta puparrietan jolasteko aukera izango da hiru bat orduz. Bihar 12.00etan suzirik jaurtiko dituzte eta ondoren Nafarroako jotak eta buruhandiak izango dira. 17.30ean entzerro txikia egingo dute ondorengo bildidearekin: Plaza Berria-Erremontari kalea-Korroko kalea eta Plaza Berria. Ondoren, txokolata izango da denontzat. 20.00etan, *Pobre de mi* abestuak dute. Ekintza guztiak Plaza Berrian antolatuko dituzte. Alde Zaharreko bizilagunek tolosar guztiak gonbidatzen dituzte San Fermin festara, eta bereziki umekak. Zuriz jantzi eta zapi gorriarekin joateko deia zabaldu dute.

ZUZENKETA >

Tolosandbluesi buruzko balantzean, Alde Zaharreko merkatetik jartzen duen lekuan Ezpeleta Alde Zaharreko Ostalarien Elkarteak jarri beharko luke, haren laguntza eskerti nahi baitaite antolatzaileek.

UDANE SARASOLA > TXIRRINDULARIA

«Emakumezkoen txirrindularitzak ez du batere laguntzarik»

Brontzeko bi domina lortu ditu Udane Sarasola txirrindulari anoetarrak Tafallan egin berri duten Espainiako Pistako Txapelketan



parte finalerako sailkatu nintzen eta bi lehenengoenkin batera iritsi nintzen helmugara, baina hauek esperientzia gehiago zuten. Abiadurako proban laugarren klasifikatu nintzen eta horrela lehenengorekin borrokatu behar izan nuen finalera iristeko. Oso ona da, eta urdurietan jarri nintzen. Gero, hirugarren eta laugarren postua erabakitzeke lehia jokatuko behar nuen. Lasaia nengoen, eta irabazi nuen. **Nola hasi zinen pistako lehiaketan parte hartzea?** Ainhoa Pagola taldekideak animatu ninduen parte hartzea. Gero lesioa izan nuen eta uzteko gogoa ere bai, baina Ana Usabiaga taldekideak eta ekipoko zuzendariak ez uzteko gomendatu zidaten. **Orain errepideko txapelketak izango dituzu.** Igandean Euskadiko Txapelketa dago Sopelan (Bizkaia), baina ezin izango dut asko egin. Pistan egin naiz entrenatzen eta hor dena laua da. Sopolako lasterketan aldapsa asko dauka, eta beste jarraitzea kostatuko zaizkigu. **Txirrindularitza kirol sufritua dela esaten da.** Orduak eskatzen ditu, eta ni ikasten ari naizenez, ondo moldatzen orduetarako, behar izaten ditut. **Nola dago gaur egun emakumezkoen txirrindularitza?** Laguntzarik ez dugu. Gizezkoekin konparatuta ez da jarraitzen egiten medioetan. Orain gutxi izan den Emakumeen Berriruz buruz motorista batek izan duen istripua atara dute telebista, edo baita helmugara iristen izan zen txirrindularien errotoak ere. Gero, gainera, entzuten duzu emakumeek ez dutela txirrindularitza aritu behar, ez dela on bainbeste esfortzu egitea. **Zer iritzi duzu gizezkoen txirrindularitza gertatu den ikasbilaz?** Oso lotsagarria da. Espagetak janda bakarrik ezin du pertsona batek horrelako esfortzurik egin. Hori garbi dago, baina txirrindularitzari egiten ari zaio minik handiena. Hor daude beste kirolak, futboleak, tenisak, arrauneak, eskian... dopping kiusiak. Eta zer gertatzen da herrietan?

IMANOL GARCIA

Udane Sarasola (Añoeta, 1989) txirrindulariari brontzeko bi domina lortu berri ditu jubilen mailan Tafallan (Nafarroa) egindako Espainiako Pistako Txapelketan. Domina bat keirin modalitatean (motorren atzetik joan behar den proba) eta abiaduran lortu zituen. Zortzi urteatik dabil bizikleta gainean eta egun Tolosa Club de Futbol taldeko txirrindularia da. **Espero al zenuen dominak lortzea?**

Espero nuen, baina ez proba horietan, 500 metrokoan bainik. Baina beroketa lanak egiten ari nintzela zapatilen kala puskatu zitzaidan. Bi pare eraman nituen, baina ordezkoarekin ibili gabe nengoen eta horregatik 500 metroetakoan egin nuen, baina gehiago egitea bazuen. **Eta nola irabazi zenuen dominak?** Ez nuen pentsatzen parte hartzea, gogorik gabe nengoelako, baina animatu ninduten eta keirineko proban hartu nuen

TOLOSA >

Umeentzako dantza ikastaroak Udaberrirekin

Udaberri dantza taldeak 2006-07 ikasturterako umeentzako dantza ikastaroak antolatu ditu. Taldearen helburua haur eta gaztekoen artean dantzarako grina bultzatzea da. Ikastaroak 4 urteko gorako haurrei zuzendurik dago, eta adinaren arabera taldeak egingo dira. Entseguak irailaren 11ko astean hasiko dira eta Igarondo Igerlekustan hasiko dira ematen. Hasiera batean taldean antolatuta horrela egingo da: txikien taldea, 2003-2005koek, ertainen taldea, 2001-2000-1999 eta handien taldea, 1998 edo lehenengoak. Gaur eta bihar Igarondo Igerlekustan otondo, Igaralde kalean Udaberri duden lokalean bulego izango du irekita 17.00etatik 20.00etara matrícula egiteko edo informazio jasotzeko.

VILLABONA-ZUZURKIL >

Skatearen inguruko ikastaro interesgarriak

Uztailaren 10etik 19ra, skate munduaren inguruko proiektu interesgarri bat jarriko dute martxan, Zuzurkigo eta Villabonako gazteei zuzendua. Hambat ekintza egingo dira: skate tailen diseinua, skate tailen margoketa teknikak ikasi, bideo grabazioak eta hideoak elkizko software-a ikusi, skate parke batera itzea. Interesatuak Villabonako gazte informazio bulego edo kale bezalakoetan lekuan eta Zuzurkigo udal bulegoetan eman dezakete izena. Ikastaroaren kostua 10 eurokoa da. Gazte bakortza berak diseinatu eta margotutako skate taula batekin aterako da ikastarotik.

VILLABONA >

EHNA eskuratzeko aukera etzi kultur etxean

EHNA eskuratzeko aukera izango da etzi Villabonako Kultur Etxean. 11.00etatik 13.00etara eta 16.00etatik 18.00etara bitartean. Aurkezte beharrezkoak 3 argazki, errokia agria (zaldetean) eta 15 euro. Villabonako Bai Euskaletzeriari ekimenak azaldu duenez, abuztuan ez da herrian EHNA eskuratzeko aukerarik izango. Hurrengo deialdia irailaren 9an izango da, orduetegi berean.

AMEZKETA > NATURA



Erreka more agertu zen atzko goizean

N. Urbizu > Amezetako erreka urak atzo moreak azaldu ziren, eta amurrainak bazterretan hilda. Herritar batek salatu duenez, urragoien morea dago; egoera hau aspalditik errepikatzen da. Paper fabrikak ixurtako produktuak dira horren eraginak. **N. URBIZU**

Gozatu TB Digital Osoaz 3 hilabetez **30€** bakarrik ordaindu. Filmin orainek nahi dituzte berriak, haurrentzako liburak, dokumentalak... 50 kanal baino gehiago ikusteko aukera duzu orain 3 hilabetez, 30 € bakarrik ordainduta. **ekhipoliki** Benetan nahi baduzu, lor dezakezu. **Euskaltel** zuzentzat. Eskatu informazioa saltokietan edo 1717 telefono-zenbakian.

abian da! **tropela.net** tourra, sarean, sariekin. **LAGUNTZAILEAK** ORBEA hitza SUKISA

IBARRA ▶ KULTURA

Kultur trukea Italian

Nazioarteko Folklore Jaialdian hartuko du parte Alurrek hiru aste barru



Anoetako jaien baitan, Alurreko dantzariak eskainitako emanaldiko irudiak. Jende ugari erakarri zuen ikuskizunak. HITZA

INIGO TERRADILLOS

Proiektu berri batean murgilduta dabil Ibarra Alurr dantzari taldea, Italian lekutuko dena, hain zuzen ere. Izan ere, bertatik jaso duten gonbidapena onartu ostean, Castiglione del Lago hirian burutuko den 29. Nazioarteko Folklore Jaialdian hartuko dute parte hiru aste barru.

Baiona, Anoeta, Zestoa, Irun eta Tolosako 8 musikari, 18 dantzari, 3 begirale eta taldeko arduraduna abiatuko dira hilaren 24an Italia aldera. Jaialdia hartuko duen hirira heldu aurretik Nimes, Genoa eta Florentzia ezagutzeko aukera izango dute, eta ondorengo bost egunetan, berriz, jaialdian murgilduko dira, Indonesia, Hungaria, Italia, Mexico, Isla de Papua, Eskozia, AEB, Bielorrusia, Venezuelak eta Turkiako taldeekin batera. Dantzatu, elkar ezagutu, elkarrengandik ikasi... norbere kulturaren oinarriak truketzea izango da egun horietan xedea. Abiatzeko eguna iritsi bitartean, prestaketa la-



Oso arrakastatsua izan zen Alurr dantza taldeak Tolosako San Joan jaietan eskaini zuen ikuskizuna. HITZA

«Udalaren babesik gabe»

Proiektu honetan aurrera egiteko Ibarra dantza taldeak ezinbestekoa izan du Eusko Jaurlaritzatik eta Europako Fondo Sozialetik jasotako laguntza. Laguntza hori posible izateko, halaber, Ibarra Udaleko Kultura eta Gazteria teknikariaren lana ere oso garrantzitsua izan da, diru laguntza emateko orduan aur-

keztu beharreko txostena egiteko orduan, besteak beste.

Hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzatik proiektu honetarako solaskide bat eskatzeko orduan herriko Kultur teknikaria aholkatu zion Alurr dantza taldeari. Herriko hainbat gazte, idatzi baten bidez, Udalar proiektu honetarako teknikariaren laguntza eskatu zioten, eta honek onartu egin zuen. Era berean, Hauspoak Gobernu Batzarrean eskaera egin zuen dantza taldeari Kultur teknikariak lagun ziezaien kultur trukaketa honetan, herriko ordezkari gisa, Italiara joanez ibartarrekin. Udalak, ordea, eskaera ez onartzea erabaki zuen, «ekimena dantza taldearena dela eta ez dagoela Udalaren ordezkapena justifikatuta» argudiatuz; hori ikusita, Alurrek Udalaren jarrera salatu nahi izan du. ◀

netan dabilta guztiak; musikariak dantzen musika prestatzen, eta dantzariak koreografiak. Horretaz gain, ordea, ikuskizun soil batean geratzen ez delako, musika tresnen eta gure dantzen historia ere ari dira prestatzen, jaialdiko azalduko dietelako, eta parte hartuko duten herrialdeetaz ere ari dira informazioa biltzen.

Kultur trukea oinarri duen proiektu hau aurrera ateratzeko, Alurrek Eusko Jaurlaritzaren eta Europako Fondo Sozialaren laguntza izan du; Eusko Jaurlaritzak kudeaketa eta aholkularitza alorrari dagokionez, eta Europako Fondo Soziala aurkeztutako *Dantza bizirik dago* izeneko proiektua onartu ostean emandako diru laguntzari dagokionez.

Proiektuaren oinarria

Duela urtebete Ezpeletako Gauargi jaialdian parte hartu zuen Alurrek. Estrainekoz, gisa horretako esperientzia jasotzeko aukera izan zuten, Armenia, Moldavia, Frantzia, Mexiko eta Senegaldik joandako taldeekin batera dantza eginez.

Gauargiko esperientzia «oso aberatsa» izan zen, iritziak eta lana egiteko eta pentsatzeko moduak alderatu ahal izan zituztelako herrialde desberdinetan bizi den jendearekin, eta hori «bereziki gazteentzat oso baliagarria izan zen». Halaber, gure kultura eta tradizioak barreiatu, eta besteengandik jasotzeko ere, horrelako jaialdiak oso garrantzitsuak direla ikusi zuten Alurreko ordezkariak. Hori guztia kontuan hartuta, Italiatik jasotako gonbita onartzea eta proiektu berri batean murgiltzea erabaki zuten.

BERASTEGI ▶

Tailerretan egindako lanak ikusgai daude

Urtero bezala, Gaztainondo jubilatuek elkarrekin urtean zehar talla eta laboreen tailerretan egindako lanak erakusketa antolatzen du. Pasa den igandean jarri zuten erakusketa jubilatuen egoitzan, eta ikusgai izango da igandera arte, hilaren 9a, 16:30etik 20:00etara.

IBARRA ▶

Odola emateko deialdia gaur ambulategian

Odol-emaleen elkarrekin jakinarazi du odola emateko hurrengo deialdia gaur arratsaldean izango dela, Ibarra ambulategian egingo dute, 19:00etatik 21:00etara. Odol-emaleen elkarrekin jakinaraziko gazteak odola ematera deitu nahi ditu eta egun horretan gertura daitezela eskatu nahi die.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzioz klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostia autobus: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzarar autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ **Tolargi:** 650016

▶ **Iurramendi egoitza:** 670325

▶ **Tolosa gasa:** 675320

iragarki laburrak ▶

LANA

Zerbitzaria. Zerbitzaria behar da Tolosaldeko taberna baterako. Lanegun osorako. 677 32 99 34.

Tabernaria. Neska euskalduna behar da lau orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentua. 635 74 52 91.

SALGAI

Etxebizitza. Etxebizitza salgai Berrobin. 29 miloi eta erdi. **Negoziagarria.** 618 83 32 56.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. «Ondo iruditzen al zaizu puntukako gidabaimenarekin hartuko diren neurri berriak? Zerbait konponduko duela uste al duzu? Jakinaren gainean zaude?» Sartu gure web orrian eta eman zure iritzia gaiaren inguruan! ▶

ARESO ▶ KIROLAK

Egindako lanarekin 'gustura', 600ekoari ekiteko prest da Areso

640 kilotan, brontzeko domina eskuratu du eta etzi bertan jokatu dute 600 kiloko aurreneko jardunaldia Erandion

JAIONE ASTIBIA

Brontzeko domina eskuratu zuen Areso sokatira taldeak, igandean, Euskal Herriko Txapelketako 640 kilotan: «Oso gustura gaude egindakoarekin. Azken jardunaldian batez ere oso tiraldi gogorak egin genituen, eta taldea berria izanagatik, oso ongi aritu gara, zoriontzeko moduko lana egin dute gazteek», azaldu diote Areso taldeetik HITZARI.

Lehendabiziko posturako lehia Nuarbe eta Gaztedi Aren artean zegoen bezala, puntuz bertan ailegatu baitziren azken saiora; 3. lekurako Areso eta Goiherri Aren artean zegoen borroka, hauek ere berdin. Azpeitiarrek irabazi zuten txapela eta Gaztedi A azpitxapeladun.

Oso tiraldi luzeak eta gogorak egin zituzten Lesakako

jardunaldi horretan oro har eta Aresori gogor hastea egokitu zitzaion ere: Nuarbe, Gaztedi A eta Goiherri A, orden horretan izan zituen arerio soka. Gainera, lehiaren bizitasunaren adierazle izan litezke, bestalde, epaileek pasibitate ere adierazi izana aldi pare batez, zuzeneko arerioen artekoak, gainera: Nuarbe eta Gaztedi Aren arteko bat, 11 minutu pasako tiraldiaren ondoren (gero Nuarbek irabazi zituen biak, txapela eskuratu); Areso eta Goiherri Aren artekoan bestea.

«Lurra oso harroa zen eta zulo handiak egin ziren, eta bi taldeak ere eustera joan ginen», azaldu dute. 15 minutu inguru egon ziren horrela, soka tenkatu eta tentsioari eusten. Lur berrira aldatu arazi zutakoan ere, 10 minututik gorako tiraldiak egin zituzten eta

bana irabazita, berdin gelditu zen aresoarren eta goiherritarren artekoa.

Tiraldi horri dagokionez «sekulako pasada hartu genuen hor bai guk eta baita haiek ere; Mutrikuren aurka tiratu zuen hurrengo Goiherrik (A taldeak) eta galdu egin zuen». Hain zuzen, hortxe erabaki zen 3. lekua, alegia, brontzeko domina Aresorentzat izatea. Honek Mutrikuri ez ezik bi B taldeei ere irabazi egin baitziren.

Etzi ekinen diote, berriz, 600 kiloko txapelketari, zazpi taldeek, Erandioko San Kristobal auzoan. «Oso talde onak daude eta kilotan justu, ahal den talderik handiena» sartuko du Aresok. «Esperantzak badauzkagu», baieztatu dute: «Taldekak berdintsu gaude eta zozketak bere eragina izanen du zurrerik», esanez.

LEITZA ▶

Iurretako gonbidatuekin pilota festa dute leitzarrek

Elkar ezagutzeko festa egin eta udazkenean hemengoak joan dira hara trukean

J. ASTIBIA

Larunbat honetarako, pilota festa antolatu du Leitzaldeko pilota eskolak: Irurretako eskolako 50 kide inguru heldu dira egun-pasa eta hemengoekin batera eskolarteko pilota partida saila jokatu eta «elkar ezagutzeko» baliatuko dute.

10:00ak aldera ailegatu omen dira bizkaitarrak; «18 pilotari etorriko dira, asko, eta hemendik ere beste hainbeste, beraz, eguerdi arte osorako izanen da», zehaztu dute. Kirolaz gain, «bi herrietako pilotariak elkar ezagutzeko» dute helburu, «eta gero, urrian edo, gu joan gara hara, trukean. Pilota eskolen arteko ezagutza da helburua», nabarmendu dute.

«Hamaiketako ederrarekin» bukatuko dute eguna.

GUTUN@K ▶

Haur Eskolaz kezkatuta

Guraso, herritar eta udal-gizon agurgarriak:

Jakina denez, Udalak Haur Eskolako bi lanpostu eta ordezkatzeko zerrenda oposaketa-lehiaketara atera berri ditu (ordezkatzeko zerrenda erabat deseginda dago, hau da, ordezkapenak egiteko zailtasun handiak daude).

Haurtzaindegiko martxa ezagutzen dugunok ederki asko dakigu zein garrantzitsuak diren umeen egokitze epeak. Ikasturte hasieran ehuneko ehuna ordaintzen dugu, nahiz eta umeak ordu gutxi batzuk egoten diren. Egokia eta ezinbestekoa iruditzen zaigu.

Gauzak horrela, erabat harriarria iruditzen zaigu Udalak ikasturtea bukatzeko hila-bete eskas falta denean hone-lako deialdia ateratzea, lanean diren irakasleak lana uztera behartuz: horren epe laburra eta eskatzen den temarioa kontutan hartuta, bateraezina delako lanean segitzea eta oposaketa prestatzea.

Udalak, bistan denez, ez ditu aurreikusitako gure seme-alabentzako sortu daitezkeen ondorio negatiboak. Ez bakarrik irakasle berriak izan daitezkeela (legezkoa da umeak haurtzaindegian ematen dituzten bi urteetan irakasle berdinarekin egotea); azterketa egunetan gelak itxia egon beharko dira; zenbat ume geldituko dira etxean? Irakasleak lana utzi gero zer saltsa sortuko da?

Zer pasatuko da gure seme-alabekin? Zenbat gela itxiroko dira? Zenbat egunetan? Ez al zen posible oposaketa prozesua 2 edo 3 astez atzeratzea? Zergatik ez zen ekaineko opor astea azterketak egiteko baliatu? Abuzturako uztea ez al da egokiagoa, aurreko probetan egin zen bezala? Zergatik ez zenuten gurasoen edota haurtzaindegia iritzi kontutan izan datak zehazteko?

PABLO FEO GOMEZ,

GURASO AFEKTATUA ▶ LEITZA

LEITZA ▶ GIZARTEA

Euskal preso politikoak herriratzeko

J. Astibia ▶ Lehengo astean Etxerarek deitutako hileroko azken ostiraleko elkarretaratzea egin zuten Leitzan ere, «euskal preso politikoen Euskal Herriratzearan alde». Azken alditan bezala, ordukoan ere, Guardia Zibila detozio bat bijilantzian aritu zen bertako kale batetik. J. ASTIBIA



▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

Tel.: 943 65 56 95

19:00ak arte hartzen dira

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

hilberria ▶



**Miel Mari Arrospide
Armendariz**
(jauna)

ATZO hil zen, 48 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Golan bego-

Haren emaztea: Maitere Munduate; semea: Joseba; gurasoak: Joxe eta Ramoni; ezkon-ama: Martina Karrera (Jose Antonio Munduateren alarguna); anai-arrebak: Maite eta Iñigo; ezkon anai-arrebak: Fatima, Xaka eta Idoia; ilobak: Maddi eta Ekhi; osaba-izebak, lehengusuak eta gainerako ahaidetok.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzeko dizeute eta arren etor zaitzetezela GAUR OSTEGUNA, arratsaldeko ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILA parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

oharra ▶ gorpuztze beldu Tolosako Funeraria Vascongada Tanatorioan egongo da 12:15ak arte

ALEGIAN, 2006ko uztailaren 6an

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko uztailaren 6a, osteguna ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



beroena **19** hotzera **17**

BIHARKO EGURALDIA



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak argitzeko, harpidetan egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. Tolosaldeko Emakumeen Mundu Marbxarako plataformak deituta, kontzentrazioa Basauriko erahilketa salatzeko. 20:00etan, Trianguloan.
Tolosa. Alde Zaharreko sanferminak: 12:00etan, txupinazoa eta gozoki eta globoen banaketa; 12:00etatik 13:00etara, Nafarroako jotak eta buruhandiak; 17:00etan, haur jolasak eta puzgarriak. Zuriz janzea eta zapi gorria eramatea eskatu dute.
Tolosa. Hilaren 11-12an Lekunberrira irteera antolatuta du Gazte Topaguneak. Zaldian ibili, igerilekua, ibilaldia Leitzaranean, lo kanpingean... Irteera, 10:30ean, Triangulotik. Bazkaria eta zakua eraman behar dira.

ERAKUSKETAK

Alegia. Miren Ortegaren margolanak. Hilabete osoan, Jubilatuen tabernan.
Hernalde. Gregorio Lopezen margolanak, Ostatuan ikusgai.
Tolosa. Kultur tailerretako ikasleen lanen erakusketa. Hilaren 8a arte, Aranburu Jauregian.
Tolosa. Jesus Lopez Zulueta margolanak, Saikin tabernan.
Tolosa. Iñaki Epelderen, Jose Luis Longaronen eta Carmen Mateoren margolanak, Errota tabernan ikusgai.
Zizurkil. Eskultura erakusketa, Olentzon.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.
Tolosa. Ebebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Jose Landarekin, HITZaren erreposoa, elkarrizketak, albisteak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
21:00-22:00. Gora Euscadi Txistulari.
22:00-23:00. Gau bero.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Besteak beste, usainak asmatzen eta buruz behera jarritako edalontzi bateko urak ihes egin ez zezan aritu ziren Hirukideko gazteboak. L. MONTES

Zientzialari egun batez

TOLOSA ▶ Samaniego, Laskorain eta Hirukidekoek zientzia hobeto ulertzeko aukera izan dute, jolas eta esperimendu bidez, Zientziaren Kutxagunekokin



Adi-adi jarraitu zituzten txikienek beroaren eraginez azukrearen eta fosforoaren iburaldaketak. L. MONTES

ERREDAKZIOA

Zientzia arrotza egiten zai-gula diogu, urrutik ikusten dugu, ez dugu askotan ulertzen. Guk justu kontrakoa frogatu nahi dugu». Hala aurkeztu zuten Zientziaren Kutxaguneko ordezkariak hainbat herritan martxan jarritako ekimena. Ikasturte amaieran Tolosan ere izan ziren, Laskorain, Samaniego eta Hirukide ikastetxeetan, hain zuzen ere, eta hango ikasleei «jolas eta esperimendu bidez zientzia gerturatzeko» saiatu ziren.

Hainbat multzotan banatuta, eta begirale banaren gidaritzapean, bitxikeri asko deskubritzeko aukera izan zuten gazteboak, besteak beste, urarekin, azukrea eta fosforoa aztertuz, poxpoloak erabiliz, usaimena landuz... Eta beraiek ere ilusio handiz egin zituzten esperimentuak eta aurkikuntzak, zientzilari iaioen antzera.

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

badugu GILTZA, badugu HITZA



Giltza entregatzeko lekuak.

- ▶ ANOETA Izarti Txokolategia
- ▶ IRURA Amets estankoa
- ▶ VILLABONA Larrea kafetegia
- ▶ LEITZA HITZAren egoitza
- ▶ TOLOSA HITZAren egoitza
- ▶ ALEGIA jubilatuen taberna